

## **HKEE-REN PRENTSA-OHARRA, UGAOKO UDALAREN 2019KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.**

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko Bilkurak joan den apirilaren 29an aho batez onartu zuen Ugaoko Udalaren ekonomiaren eta finantzaren kudeaketaren gaineko fiskalizazio txostena, 2019ko ekitaldiari dagokiona.

2019ko ekitaldiko **Urteko Kontuei** dagokienez, HKEEk **aldeko iritzia** plazaratu du, nahiz kontularitzako doiketak azaleratu diren; horiek erregistratuz gero, Udalaren Gastu Orokorretarako Diruzaintza Geldikina 250 mila euroan gehituko litzateke. Gainera, Epaitegiak ezin zehaztu izan du Balantzeko ibilgetu- eta amortizazio-saldoek egiazko egoera islatzen dutenetz.

HKEEk fiskalizazio-gai izan den Kontu Orokorrak erakusten duen **finantza egoera** aztertu du eta ondorioztatu du Udalak egoera ekonomiko osasuntsua duela eta behar hainbateko baliabideak dituela ohiko jarduerari eusteko eta etorkizuneko inbertsioei zorpetu beharrik izan gabe aurre egiteko.

Bestalde, HKEEk azpimarratu du 2020an diru-sarrerek behera egin dutela COVID-19aren pandemiaren ondorioz.

Udalaren Kontu-hartzaitzak jaulkitako txostenaren arabera, **2019ko ekitaldian bete egin da 2019ko aurrekontuaren likidazioan aurrekontuaren egonkortasun, gastuaren arau, eta zorraren helburua.**

Udalak zuzentasunez bete du 2019an jarduera ekonomikoa eta finantzarioa arautu duen lege-araudia, nahiz unean uneko akatsak azaleratu diren administrazioko kontratazioan: erregulazio harmonizatuari loturik izapidetutako kontratu bat EBAOn argitara gabea; mugaeguneratutako kontratu bat egikaritzen jarraitzea; zerbitzu baten gastuak dagokion nahitaezko kontratazio prozedura izapidetu gabe gitea.